

Nork egiten du gauza bakoitza?

Ordaindu gabeko etxeko lanetan ematen den denborak lanaren zati handi bat hartzen du, batez ere emakumeen kasuan, zeren tradizionalki halako etxeko lanetan emakumeak aritzen baitira gehienbat. Beraz, abenduko eta urtarrileko grafikoetan agertzen den informazioan oinarrituz, hausnarketa egin behar genuke gaiaren inguruan.

Bestalde, emakumeek eta gizonek etxean egiten dituzten lanek oso lotura estua dute genero-estereotipoekin. Horrek ere estereotipoen gaia jorratzera eramango gaitu. Besteei buruz daukagun pertzepzioa prozesu kognitibo batzuen ondorioa da, eta pertzepzio hori, askotan, estereotipoek baldintzatuta egoten da.

Gure gizartean, taldeak egiten ditugu, eta talde bakoitzari ezaugarri batzuk ematen dizkiogu. Estereotipoen bidez, sailkatu egiten ditugu pertsonak, dagokien taldearen ezaugarrien arabera. Gauzak horrela, estereotipoak onak dira inguratzen gaituen errealitate konplexuko kaosa antolatzen dutenean, baina ez hain onak gure taldekoak ez diren pertsonen buruzko informazioa mugatzen dutenean.

Estereotipoak hiru motatakoak izan daitezke, balorazioaren arabera: positiboak, negatiboak edota neutroak. Adibidez:

Positiboa: Emakumeak sentiberak dira.

Negatiboa: Emakumeak kuxkuxeroak dira.

Neutroa: Andaluziako emakumeak beltzaranak dira.

Jarduera honek gizonen eta emakumeen inguruko estereotipoei buruz hausnarketa egiten lagunduko digu, eta, horrez gain, etxeko lanetan zer egin behar genukeen pentsatzen ere bai.

Eman ikasle bakoitzari 2. koadroaren kopia bana, eta azalpen hau eman:

«Giza baliabideen enpresa baten arduradunak zarete, eta lan zehatz batzuk egiteko pertsonak hautatu behar dituzue. Gizonen eta emakumeen lan kopuru berbera eman behar diezue: bakoitzari bost. Curriculumak aztertuz hautagaiak bilatuko dituen taldeari zerrenda eman baino lehen, erabaki behar duzue lanpostu bakoitzerako gizon bat ala emakume bat proposatuko duzuen. Ea intuizioak zer esaten dizuen, eta eman lanpostuak bost gizon eta bost emakumeri.

Azaldu egin behar duzue zergatik hartu duzuen erabakia».

Eman denbora bat koadroa osa dezaten. Bukatu dutenean, honelako galderak egin ikasleei:

- Zalantzarik izan al duzue eginkizunen bat markatzean? Zeinetan? Zergatik?
- Baten batean zaila iruditu al zaizue erabakia hartzea? Zeinetan? Zergatik?
- Bidezkoa iruditzen al zaizue lanpostuak generoaren arabera erabaki behar izatea?
- Ezagutzen al duzue normalean gizonek egiten duten lana egiten duen emakumerik? Eta emakumeek egiten duten lana egiten duen gizonik?
- Ba al dakizue estereotipoak zer diren? (Azaldu estereotipoak zer diren)
- Zuen ustez, nesken eta mutilen estereotipoei jarraituz bete al duzue galdetegia? Gero, aztertu denen artean zer estereotipo ikusten dituzuen bakoitzean.
- Zuen ustez, estereotipoak baztertzeko pertsona gisa heltzen laguntzen al dizue? Nola?
- Ezer ikasi al dugu galdetegi honekin?



Azkenean, ondorio batzuk atera, hauen modukoak:

- «Ez ditugu lanpostuak neska edo mutila izatearen arabera bakarrik banatu edo esleitu behar».
- «Ez dago neskena bakarrik edo mutilena bakarrik den eginkizunik».
- «Baztertu egin behar dugu estereotipoek ohitura hutsez agintzen digutena».
- «Kritikoak eta ausartak izan behar gara, lotsarik ez sentitzeko eta benetan pentsatzen duguna adierazteko».

Ondorio hauek klipmetraje baten gidoia prestatzeko balio dezakete.



ERANSKINA

2. koadroa

Nori proposatuko zenioke...?	Gizon bati	Emakume bati
<ul style="list-style-type: none">• Ingeniaritza-sail bat zuzentzea.• Arrisku handiko dokumental bat grabatzea.• Ibai batean behera kanoaz joateko abentura bat zuzentzea.• Haurren abesbatza bat zuzentzea.• Zaharrak zaintzeko talde bat koordinatzea.• Futbol talde bat entrenatzea.• Arratsalde batean ume txikiak zaintzea.• Dekorazio-enpresa txiki bat sortzea.• Jatetxe on bateko sukaldea zuzentzea.• Gazteen udalekuetako sukaldea zuzentzea.		